# Demokrazia arriskuan: feminismoaren ekarpenak



Ikastaro hau, ekainaren 23an izango den "Emakumeak Politikan: Erronkak eta Aurrerapenak Gipuzkoan" ikastaroarekin batera, ibilbide osagarri baten parte da. Bietara joatea gomendatzen da, gaiari buruzko ikuspegi osoagoa eta aberasgarriagoa izateko.

## Eka. 22 2026

### Kod. G06-26

**Mod.:**
Aurrez aurrekoa

**Edizioa**
2026

**Jarduera mota**
Uda Ikastaroa

**Data**
Eka. 22 2026

**Kokalekua**
Miramar Jauregia

**Hizkuntzak**
Euskara Gaztelera

**Balio akademikoa**
10 ordu

### Antolakuntza Batzordea

# Azalpena

Demokraziarentzat gero eta arrisku handiagoak dituen testuinguru globalean (horien artean, populismoen gorakada, herritarrek erakundeekiko duten desafekzioa eta sistema politikoek politika publiko inklusiboak bultzatzeko duten zailtasuna nabarmentzen dira), premiazkoa da sistema politiko demokratikoak nola babestu eta horien oinarri diren balioak nola indartu hausnartzea. Feminismoak, tradizio intelektual eta gizarte-mugimendu gisa, erronka horiei aurre egiteko tresna teoriko eta praktiko indartsuak eskaintzen ditu.

Uda Ikastaro honetan, feminismoak demokraziarentzat gaur egun dituen arriskuen aurrean duen zeregina aztertzea proposatzen da, zientzia politikoaren arloko azterlan feministek eta genero-ikerketek egiturazko joerak identifikatzea, teoria demokratikoaren funtsezko kontzeptuak birpentsatzea eta berdintasun-politika sendoak bultzatzea ahalbidetzen duten esparru kritiko eta propositiboak nola garatu dituzten erakutsiz. Jarduerak ekarpen horiek hiru arlo osagarritan landuko ditu: teorikoa (demokraziari buruzko teoriei kritikak eta berrikuspenak), instituzionala (arriskuan dauden berdintasunerako egiturak eta politikak) eta soziala (mugimendu feministak eragile demokratizatzaile gisa duen eginkizuna).

**Ikastaro hau, Emakumeak Politikan: Erronkak eta Aurrerapenak Gipuzkoan ekainaren 23ko ikastaroarekin batera, ibilbide osagarri baten parte da. Bietara joatea gomendatzen da, gaiari buruzko ikuspegi osoagoa eta aberasgarriagoa izateko.**

## Helburuak

Kalitate demokratikorako gaur egungo arriskuak ikuspegi feministatik aztertzea.

Teoria demokratikoak kritikoki aztertzea, genero-joerak eta kontzeptuak berritzeko proposamenak identifikatzeko.

Berdintasun-erakundeen eta -politiken egoera eta erronkak ebaluatzea.

Mugimendu feministak demokraziaren defentsan eta zabalkundean duen zeregina ulertzea.

Tresna teorikoak eta analitikoak ematea, demokraziek gaur egun dituzten arriskuak interpretatzeko eta horiei erantzuteko.

## Lankidetza

GIPUZKOA
Foru Aldundia · Diputación Foral

# Programa

## 2026-06-22

| | |
|---|---|
| 09:00 - 09:15 | Erregistroa |
| 09:15 - 09:25 | Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena<br>**Nerea Isasi Bedayo** \| Diputación Foral de Gipuzkoa - Directora para la Igualdad de Mujeres y HombresHizkuntza: euskara<br>**Arantxa Elizondo Lopetegui** \| EHU - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: euskara |
| 09:30 - 10:15 | “Teorías de la Democracia desde el Feminismo“<br>**Marian Martínez-Bascuñan** \| Universidad Autonóma de Madrid - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español |
| 10:15 - 11:00 | “Análisis del momento actual y riesgos para la institucionalización del feminismo“<br>**Marta Lois** \| Universidad de Santiago de Compostela - Decana y profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español |
| 11:00 - 11:30 | Atsedena |
| 11:30 - 12:15 | “El feminismo ante los riesgos actuales; papel de las instituciones y del movimiento social“<br>**Cornelia Roggeband** \| University of Amsterdam - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español |
| 12:15 - 13:45 | Mahai ingurua: “Aportaciones desde el feminismo para la calidad de la Democracia “<br>**Arantxa Elizondo Lopetegui** \| EHU - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español<br>**Marian Martínez-Bascuñan** \| Universidad Autónoma de Madrid - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español<br>**Marta Lois** \| Universidad de Santiago de Compostela - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español<br>**Ainhoa Novo Arbona** \| EHU - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español |
| 13:45 - 14:00 | Itxiera<br>**Arantxa Elizondo Lopetegui** \| EHU - Profesora de Ciencia PolíticaHizkuntza: español<br>**Nerea Isasi Bedayo** \| Diputación Foral de Gipuzkoa - Directora para la Igualdad de Mujeres y HombresHizkuntza: euskara |

# Zuzendaritza



### Arantxa Elizondo Lopetegui

Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakasle titularra

---

Arantxa Elizondo Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakasle titularra da. Euskal Herriko Unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra: berdintasuneko agenteak (2000-2023) eta International Election Observation and Electoral Assistance Graduondokoaren (2013-2015) sortzailea eta zuzendarikidea. AECPA Politika eta Administrazio Zientziaren Espainiako Elkarteko presidentea (2017-2022). Eusko Legebiltzarrak Autonomia Estatutuaren proposamen artikulatu bat egiteko izendatutako batzordeko kidea (2018-2019), Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia (2009-2012). Bere ikerketa- eta argitalpen-ildo nagusiak honako eremu hauetan kokatzen dira: azterlan feministak, genero-azterlanak, berdintasun-politikak, emakumeen partaidetza eta ordezkaritza politikoa, generoarekiko sentikorrak diren parlamentuak, unibertsitateko berdintasun-politikak, etab.



### Nerea Isasi Bedayo

Gipuzkoako Foru Aldundia

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoaren Zuzendaria

# Irakasleak



### Arantxa Elizondo Lopetegui

Euskal Herriko Unibertsitatea, Irakasle titularra

---

Arantxa Elizondo Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzia Saileko irakasle titularra da. Euskal Herriko Unibertsitateko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunari buruzko Masterra: berdintasuneko agenteak (2000-2023) eta International Election Observation and Electoral Assistance Graduondokoaren (2013-2015) sortzailea eta zuzendarikidea. AECPA Politika eta Administrazio Zientziaren Espainiako Elkarteko presidentea (2017-2022). Eusko Legebiltzarrak Autonomia Estatutuaren proposamen artikulatu bat egiteko izendatutako batzordeko kidea (2018-2019), Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia (2009-2012). Bere ikerketa- eta argitalpen-ildo nagusiak honako eremu hauetan kokatzen dira: azterlan feministak, genero-azterlanak, berdintasun-politikak, emakumeen partaidetza eta ordezkaritza politikoa, generoarekiko sentikorrak diren parlamentuak, unibertsitateko berdintasun-politikak, etab.



### Nerea Isasi Bedayo

Gipuzkoako Foru Aldundia

---

Gipuzkoako Foru Aldundiko Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Organoaren Zuzendaria



### Marta Lois

---

Zientzia Politiko eta Sozialen Fakultateko dekanoa, Zientzia Politikoan doktorea eta USCko Zientzia Politiko eta Soziologia Saileko irakaslea. Berdintasun, Eskubide eta Gizarte Estatuari buruzko ikerketarako Armela Sareko kidea da. Ikerketa proiektu ugaritan parte hartu du, eta bere argitalpenak berdintasunaren arloko politika publikoetan eta teoria politiko feministan oinarritzen dira. Halaber, hainbat lan kolektibo garrantzitsu koordinatu ditu, hala nola Género y Política (2022, Tirant lo Blanch) eta Ciencia Política con perspectiva de género (2014, Akal); azken honek Ángeles Durán Berrikuntza

Zientifikoko Saria jaso zuen. 2015etik 2023ra Santiago de Compostelako Udaleko tokiko gobernuko zinegotzia izan zen, eta lau urtez berdintasun arloko gobernu-ardurak bete zituen. 2023an Kongresuko diputatua eta bozeramaile parlamentarioa izan zen.



**Marian Martínez-Bascuñan**

---

Es profesora de Teoría Política y Pensamiento Feminista de la Universidad Autónoma de Madrid. Finalizó sus estudios de Ciencia Política y Derecho en el Institut d´Études Politiques de París y ha sido investigadora visitante en la Universidad de Chicago y en la Universidad de Columbia de Nueva York. Es autora del libro Género, emancipación y diferencias (Plaza & Valdés, 2012), co-autora con Fernando Vallespín de Populismos (Alianza Editorial, 2017) y recientemente ha publicado El fin del mundo común. Hannah Arendt y la posverdad (Taurus, 2025). Ha escrito artículos académicos en revistas de investigación como Journal World Political Science, REIS, ISEGORÍA o RECP, entre otras. En junio de 2018 fue nombrada directora de Opinión del diario EL PAÍS, cargo que ejerció hasta 2020. Actualmente es columnista de ese diario.



**Ainhoa Novo Arbona**

UPV/EHU, Profesora agregada

---

Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko (UPV/EHU) Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakasle doktorea. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko Irakaskuntza Antolakuntzako dekanordea eta Zientzia Politiko eta Kudeaketa Publikoko Graduko koordinatzailea izan da. Duela bost urtetik hona, Euskal Herriko Unibertsitateko Gradu Batzordeko kide da eta, gainera, Zientzia Politikoari buruzko Espainiako Aldizkariaren Argitalpen Kontseiluko kide. Politika publikoak, bereziki berdintasunekoak eta sistema federalak izan dira bere ikerketa-ildo nagusiak.



**Cornelia Roggeband**

---

Profesora Asociada en el Departamento de Ciencia Política de la Universidad de Ámsterdam y Directora

del Centro de Investigación de Ámsterdam sobre Género y Sexualidad. Su experiencia investigadora se encuentra en la intersección de la política de género, los movimientos sociales y el cambio institucional, con un enfoque particular en la politización de la violencia de género, la transversalización de género y las políticas de igualdad. Ha publicado extensamente sobre redes feministas transnacionales y las dinámicas del activismo feminista en diferentes contextos políticos. Su investigación actual explora el impacto del retroceso democrático en las políticas de igualdad de género, particularmente en Europa Central y Oriental y América Latina. Conny Roggeband es autora y coautora de cuatro libros, incluyendo su monografía más reciente, Politicizing Gender and Democracy in the Context of the Istanbul Convention (Palgrave, 2021). También ha editado siete volúmenes académicos, el más reciente de los cuales—coeditado con Gisela Zaremberg—se titula Feminism and Anti-Gender Mobilisation in Latin America: Struggles for Sexual and Reproductive Rights (De Gruyter, 2024).

## Matrikula prezioak

| AURREZ AURRE | 2026-06-22 ARTE |
|---|---|
| Matrikula doan | 0 EUR |
| Donostia Kultura | 0 EUR |

# Kokalekua

## Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa